



Arartekoaren ebazpena, 2010eko urtarrilaren 12koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailari gomendatzen zaio IT Txartela sistemaren arabera ematen den maila aurreratuko Microsoft Excel XP moduluaren ziurtagiria onartzeko

Aurrekariak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak hautapen probak deitu zituen, administrazio orokorreko eskalan, administrazioiko azpieskalan, karrerako funtzionario bidez 98 lanpostu betetzeko.

Deialdia eta deialdiaren oinarri arautzaileak Bizkaiko diputatu nagusiaren uztailaren 30eko foru dekretuaren arabera onartu ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 168. zenbakian argitaratu ziren, 2008ko irailaren 3an.

3.1.3 oinarri espezifikoko oposizio faseko hirugarren ariketaren edukia arautzen du, derrigorrezkoa eta kanporatzailea dela ezarriz. Hori oinarri hartuta, xedatzen du hautagaiek ordenagailuak erabiltzeko gai direla erakutsi behar dutela, bai testu-tratamendurako programei dagokionez, eta baita kalkulu-orrienei ere. Jakintza hori, zehazki, Microsoft Word XPko testu-tratamendurako programari buruzkoa da, maila aurreratuan, eta Microsoft Excel XPko kalkulu-orriaren programari buruzkoa, oinarrizko erabiltzaile gisa. IT Txartela dutenek ez dute ondorio horretarako iragartzen den proba praktikoa egiteko betebeharririk. Informazio teknologietarako oinarrizko gaitasuna ziurtatzeko European Software Institute izenekoak (ESI) garatutako IT Txartelaren sistemaren arabera emandako agiriei buruz ari da.

Hautapen prozesua izapidetzean, administrazioak bere web orrialdean iragarpen bat argitaratu zuen. Horren bidez adierazi zuen IT Txartelaren Microsoft Excel XP moduluaren maila aurreratua egiaztatzeko ziurtagiria ez zela aintzat hartuko ariketa gainditzeari zegokionez.

Microsoft Excel XP moduluaren maila aurreratuari dagokion ziurtagiria aurkeztu zuen hautagai batek ikusi zuen hautapen probetan zeukan interesa kaltetu egiten zela, bere ustez okerra zen erabaki baten ondorioz. Bere ustez, ziurtagiri horrek egiaztatzen du ziurtagiriaren jabeak ariketa gainditzeko oinarriek eskatzen duten jakintza baduela eta gainditu egiten duela.



Administrazioaren eta prozesuko kalifikazio epaimahaiaren aurrean aurretik erreklamazioak egin ondoren eta bere asmoak aintzat hartzen zituen erantzunik ez jaso ondoren, Arartekoaren erakundera jotzea erabaki zuen eta azaldutako arrazoia hizpide duen kexa egin zuen.

2. Kexa aztertzen hasteko, Bizkaiko Foru Aldundira jo genuen, laguntza eske.

Idazki horretan jada, deialdia egin zuen administrazioari aurreratu genion Microsoft Excel XP modulua maila aurreratuko ziurtagiriaren eraginkortasuna baztertu zuenean erakundeak erakutsi zuen jarrerari buruzko zalantza genituela. Hasierako balorazioa modulu bereko oinarritzko mailako programaren eta aurreratuaren arteko alderaketaren ondorio zen. Agiri horiek gure laguntza-eskaerarekin batera bidali genituen, foru erakundeak zegokion azterketa egin eta horren gainean zuen iritzia helaraz ziezagun.

Foru Aldundiak gaiari eman genion ikuspuntua gaitzesteko txostena egin zuen, eta haren oinarri ziren argudioak atal hauetan jaso ditugu, laburki:

- a) Argudioak horrelaxe azaltzen ditu hitzez hitz: *"...prozesuaren hirugarren ariketa, derrigorrezkoa eta baztertzaila dena, ordenagailuen erabilera egiaztatzeako proba praktikoa bat da. Hautagaiek bi bide zituzten ezagupen horiek egiaztatzeako: bata, ariketa egitea, eta, bestea, dagokion IT txartela aurkeztuta, ezagupen horiek ziurtatzea (Word XP aurreratuari eta Excel XP oinarritzkoari dagozkien txartelak). Horrez gain, eskatzen ziren ezagutza arloetako bakoitzari dagokion edukia argitaratu zen."*
- b) Administrazioa ziurtagiri bidez egiaztatzeari buruzko galderak jasotzen ari zelako, profesionalak hautatzeko eta prestatzeko zerbitzuak ESira jotzea erabaki zuen. Eta institutuak erantzun zien ez zegoela baliozkotzerik.

Kalifikazio epaimahaiak ere galdera bera egin zuen eta erantzuna berretsi zen.

Interesdun oren ezaguera bermatzeko helburuarekin, administrazioak erabakia eta erabaki hori hartzeko arrazoiak argitaratzea erabaki zuen.





- c) Erabaki horrek beharrezko berme juridikoa du. Lehenik eta behin, deialdiaren legea diren oinarriek ez dute baliozkotze sistemarik jasotzen. Hortaz, kalifikazio epaimahaiak beste ziurtagiri bat baliokidetzat jotzeak oinarrian xedatutakoa aldatzea ekarriko luke, eta horrenbestez, organo hautatzailearen betekizunak mugaz gaindikoak izatea ere. Bigarrenik, administrazioen jardueren eraginkortasun printzipioek eta segurtasun juridikoak hartutako eta argitaratutako erabaki bat bere horretan mantentzea gomendatzen dute, aldaketaren batek pertsonaren bat kaltetu bailezake. Horrez gain, adierazi dute, maila aurreratuko ziurtagiria edukita, oinarrizko maila lortzeko azterketa berriro egin dutenak izango liratekeela kaltetuak, oposizioko hurrengo ariketa prestatzeko denbora gutxituko bailukete.
- d) Administrazioaren txostenaren bukaeran, gure planteamendua etorkizuneko prozeduretan aztertzeko aukera aipatzen da, prozesu horietan informatikari buruzko jakintzak eskatzen direnean eta sistema beraren bidez ziurtagarriak direnean.

Aurrekarien aurkezpen honen ondoren, uste dugu egokia dela, orain, ordenamendu juridikoak ezartzen dituen arau eta printzipioak jarraituz, analisia egitea. Eta horretarako, administrazioari eskatuko diogu aintzat har ditzala gogoeta hauek:

Gogoetak

1. Kexa eragin duen administrazioaren jarduera Bizkaiko Foru Aldundiak deitutako hautapen prozesuaren eremuan dago. Hautapen prozesua hautagaiak administrazio orokorraren eskalan, administrazioko azpieskalan, funtzio publikoan sartzeko egin da.

Prozesuko oposizio faseak lau ariketa dauzka eta lehenengo hirurak derrigorrezkoak eta baztertzailak dira. Hirugarrena hautagaiek informatikaren inguruan dituzten ezagutza eta gaitasunak egiaztatzeko da, eta berezia da, izan ere, bi bide daude berau gainditzeko. Ohiko *ad hoc* proba eskema jarraituz osatutako ariketari beste aukera bat gehitu zaio: eskatutako maila agiri bidez egiaztatzea, eta azken kasu horretarako baldintzak oinarrietan ezarri dira.





Aipatu behar da testuinguru horretan sortutako arazoa, espediente honek hizpide duena, ez dela berria izan erakunde honen zereginiei dagokienez. Lehenago, beste administrazio batek deitutako lehiaketa esku artean dugun erabaki administratiboaren esparrua izan zen. Horrek ere hainbat kexa eragin zituen eta izapideak 2009ko apirilaren 2ko Ebazpena emanaz amaitu ziren (gure webgunean agertzen da). Ebazpenean egindako irizpena kexa honetako inguruabarrak aztertzeke erabil daiteke. Hori dela eta, xedapen horretan erabilitako arrazoiak berriro errepikatzen ditugu.

Hori aipatu ondoren, gaia aztertuko dugu, 3.1.3 oinarri espezifikoa ezarritakoarekin, hizpide dugun ariketari dagokionez:

“1.3. Hirugarren ariketa.

Ordenagailuak erabiltzeko (testu prozesadorea eta kalkulu-orria) ariketa praktiko bat izango da. Proba epaimahaiak ariketa hasi baino lehentxeago zehaztuko du. Microsoft Word xp avanzado softwarea erabiliko da testu prozesadorerako eta Microsoft excel xp básico softwarea kalkulu-orrirako, honako eduki honekin:

(...)

Microsoft Excel

- Oinarrizko eragiketak: Programa ireki eta bertatik irten, kalkulu-orri baten elementuak, orri baten konfigurazioa, orrien edo liburuen bilaketa, fitxategiak beste erabiltzaile bati bidaltzea.*
 - Datuak: Sartu eta ezabatu, formulak, oharrak, gelaxka bateko eragileak, funtzioak, iragazkiak, datuen balidazioa.*
 - Tresnak: goiburuak, zuzenketa automatikoa, orrien eta liburuen babesa, lineako laguntzak.*
 - Formatua: gelaxkena, zutabeena, errenkadena, testuarena, ertzak, itzalak, estiloen definizioa.*
 - Datuak editatu eta aldatu.*
 - Lana grafikoekin: txertatu, gorde, ezabatu.*
- Grafikoak ez diren elementuak txertatu.*

IT txartela duten pertsonen bidez egiaztatu ahal izango dituzten ezagutza horiek. Horretarako nahikoa izango da, hirugarren ariketa egin baino lehen, jatorrizko egiaztagiria Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistroan eta Langileen Aukeraketarako eta





Trebakuntzarako Zerbitzuan aurkeztea, agiri hori egiaztatu eta aukeraketa prozesu honen espedienteari eranstea.”

2. Aurreko gogoetan adierazi bezala, prozedurako fase hau gainditzeko bi bide ezarri ditu deialdiak; beharrezko egiaztagiria aurkeztea edo deitutako proba agertzea. Bide bat edo bestea aukeratzea hautagaiek, aurretik, eskatutako IT Txartelaren moduluak KZ gunean edo ESIk homologatutako zentroetan gainditzearen mendekoa da.

Dituzten egiaztagiria oposaketa ariketa hau gainditzeko nahikoa diren zehazte aldera, ezagutzak egiaztatze agiriaren edukian zentratu behar da eztabaida. Zehazki, Microsoft Excel XP maila aurreratua egiaztatzen duen agiriak 3.1.3. oinarri arautzaileak eskatutakoa betetzen ote duen aztertu beharra dago.

Oinarri horrek dio oposizioko ariketaren helburua dela ordenagailuetako testu-tratamendua eta kalkulu-orriak nola erabiltzen diren baloratzea. Bi edukietako lehenengoa ebaluatze, Microsoft Word XP (maila aurreratua) tresna informatikoa erabiliko da, eta bigarreneko, Microsoft Excel XP (oinarrizko maila). Oinarrian, tresna bakoitzean ebaluatuko diren edukien zerrenda dago; Microsoft Excel XP tresnaren kasuan, aurreko gogoetan idatzitakoak dira.

Deialdiko ezarpen horiek, halaber, ezagutza bera egiaztatzea dakarte, ariketa gainditzeko egindako bidea dena delakoa, esparru edo gaiari dagokionez, zein jabekuntza mailari dagokionez.

Oposaketa faseari buruz ari garela eta, uste dugu ezagutza horiek direla eskaintako lanpostuak egoki betetzeko beharrezko direnak. Ez dezagun ahantz, hautaketa prozesuetan, proben edukia lanpostuetan bete beharreko eginkizunetara egokitzeko beharra dagoela. Egokitasun hori hautaketa prozesu jakin hori diseinatzerakoan, zein izangaiek egindako probak edo ariketak ebaluatzerakoan hartu beharko da kontuan.

EHUren aurrean gure argudioek ildo nagusiari eutsiz, eta horretan jarraitzea saihestezina dela uste dugu, gure ondorioak atera ditugu, Microsoft Excel XP aurreratuaren IT Txartela egiaztagiria bigarren ariketan gai kalifikazioa jasotzeko adina ezagutza bermatzen duen egiaztatze lanaren ondoren. Ezagutza horien jabe izateko oinarrizko maila gainditu behar dela kontuan





harturik, gure ustez, lan hori burutzeko nahikoa da ESik moduluaren maila ezberdinetarako ezarritako edukiak alderatzea, oinarrizkoa eta aurreratua.

Maila bien edukia http://www1.eeuskadi.net/reg/certif_s.html web gunean dago ikusgarri. Modu grafikoan antolatu dute, enuntziatu berdina duten zazpi kapituluko koadroa osatuz. oinarrizko eragiketak, datuak, programako tresnak eta aukerak, formatua, datuak editatu eta aldatu, grafikoak eta elementuak sartu.

Kapitulu horietako bakoitza garatu dute, eta maila aurreratuaren edukietan ageri den lehenengo zutabea oinarrizko mailak duen zutabe bakarraren kapituluen kopia zehatza da.

Maila biek duten eduki komun horretatik aurrera, aldea maila aurreratuan dago. Komunean duten zutabeari beste bi gehitu zaizkio, hainbat ezagutza adierazteko.

Ondorioz, Microsoft Excel XP modulu aurreratuari dagokion egiaztagiria duen pertsonak oinarrizko maila gainditzeko ezagutzak barne hartzen zituen proba gainditu behar du, azken maila horretako egiaztagiria lortzeko proban aurkeztu edo ez. Areago, maila hitzak berak mailaketa dakar, eta hori zerbait bata bestearen ondorengo mailetan antolatzea da.

Administrazioak ESik diseinatutako moduluaren edukiari heldu beharrean, oinarrietan ariketan agertuko diren gaien zerrenda jaso duen deialdi zehatz honetan, aintzat hartu behar da gai guztiak bi ziurtagirien programen parte direla (oinarrizko maila eta maila aurreratua). Horrez gain, aintzat hartu behar da zerrenda horretan jasotako hiru gai maila aurreratuan baino ez direla agertzen. Hortik ondoriozta daiteke oinarrizko mailaren ziurtagiriak ez lukeela egiaztatuko hautagaiak gai horiei buruzko jakintza duenik. Zehazki honi buruz ari gara: *“orrien eta liburuen babesa”, “lineako laguntzak” eta “estiloen definizioa”*.





- 3.- Lehenengo gogoetan aipatu dugun 2009ko apirilaren 2ko ebazpena kexen azterketak eragin zuen eta azterketa horretan txosten bat bildu genuen. Txostenak, gaiari buruz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eusten duen irizpidea jasotzen du. Iritzi hori baliagarritzat jo behar da, langile publikoak hautatzeko, prestatzeko eta hobetzeko, legeak eskumen garrantzitsuak ematen dizkion erakundea baita.

Orduan jardun genuen bezalaxe, erakundearen iritzia eta horri buruz dugun balorazioa ebazpen honi gehitzea egokia dela uste dugu.

Aldi hartan adierazi genuen moduan, erakunde horren iritziz, oso egokia da IT Txartela egiaztagiri sistemaren curriculum diseinuaz hitz egiteko bere txostenean erabiltzen duen "ezagutzen jakokuntza progresiboa" kalifikazioa. Era berean, euskararen ezagutza eta erabilera egiaztatzekeo hizkuntza eskakizunen sistemarekin alderatzen du.

HAEEK bere txostenean adierazi bezala, hala ulertu dute beste administrazio batzuek ere. Adibide gisa, nahikoa dira hauek: Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrak, 2007ko LEPekeo hautaketa prozesuen oinarri orokorrak (abenduarien 23ko 187/2007 Foru Araua; 2008ko urtarrilaren 23ko ALHAO) eta Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuaren 2008ko LEPekeoak (azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpena, 2008ko abenduaren 3ko EHAA). Ezarpen biek diote *"Modulu beraren oinarrizko bertsioa eta bertsio aurreratua egiaztatzen diren kasuetan, azken hau soilik balioetsi ahal izango da"* eta lehiaketarako ondorioetarako pentsatuta ere, argi geratzen da ezagutzen progresioa edo pilaketa aintzat hartzen dela.

Oinarrizko maila egiaztatzekeo maila aurreratua ez onartzeari dagokionez, txostena horren aurka dago. Izan ere:

"Egiaztapen desberdinak direla argudia badaiteke ere, bistakoa dirudi maila aurreratua lortzekeo oinarrizko mailaren ezagutzak izan behar direla, eta, hortaz, erreduantzia litzateke maila aurreratua egiaztatuta duten hautagaiei oinarrizko maila egiaztatzekeo eskatzea. Bide beretik (nahiz eta hizkuntza-normalizazioko prozesuak arautzen dituzten arauetan berariaz ez den adierazten hizkuntza-eskakizun jakin bat egiaztatzeak beheagoko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea dakarrela), jokabide horren arabera jardunda, 2. hizkuntza-eskakizuna esleituta eta derrigortasun-data igarota duen lanpostu baterako hautaketa-prozesutik kanpo utziko genuke 3. edo





4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izan baina beherako hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiririk ez duen hautagia.

Alegia, bai hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko sisteman, bai IT Txartelaren bidez informatika-arloko ezagutzak egiaztatzeko sisteman, azpian dagoen curriculum-disenuari arabera, ezagutzak pixkanaka eskuratzen dira, eta, beraz, gure ustez, ezagutza-maila aurreratuagoa egiaztatzen duenak beheragoko ezagutzak ere badituela aurreresuposatzen du curriculum horrek.”

4.- Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat arrazoi eman ditu bere jarduerara berresteko. Lehenengo arrazoiak dio ESIk, egiaztagiriak bidaltzearen arduradunak, kontsultei erantzuterakoan adierazi duela ez dagoela baliozkotzerik.

Argudio horri erantzunez, esan daiteke European Software Institute fundazio bat dela 1993an Europako Batzordeak eratu zuenetik, eta Informazio Gizartearen garapena laguntzen duela. Bere ekarpenetako bat software tresnak erabiltzeko gaitasunak egiaztatzeko sistema da. Sistema hori, egiaztagiria duten pertsonen ezagutzak eta gaitasunak objektiboki eta independenteki neurtzeko bitartekoa da.

Gure aburuz, ez dago oztoporik administrazio publiko bat sistemaren beste onuradun bihurtzeko. Areago, “Euskadi Informazioaren Gizartean” planak tresna horiek erabiltzen ditu, hartzaile dituen herritarrei, enpresei eta administrazioari zerbitzu emateko.

Egintza horietako ezeinek ez du oraingo eztabaidan tokirik. Egiazki, erakunde orotan gertatu ohi den legez, ESIren ahalmena da bere funtzionamendua eta berezko antolamendua arautzeko arauak ematea, eta haien barruan, informatikako ezagutzak egiaztatzeko sistemaren diseinuarekin bat datozenak ere eman behar ditu.





Hortaz, ez dugu zalantzan jartzen ESIk kontsultari emandako erantzuna erakundearen arauetatik datorrenik.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu, administrazioek egiaztatze sistema interpretatu eta aplikatzeko berau erabiliko den administrazio prozesuaren helburu berari jarraiki egin behar dutela, baita eskura ditugun adina balorazio elementuak ere, bereziki langile publikoak hautatzeaz ari garenean. Elementu objektibo eta argia da, hain zuen, moduluen edukia. Horien ebaluazioak prozedurarekin bat datozen erabakiak hartzea ahalbidetuko dio administrazioari, trebakuntza programa edo egiaztagiriri bakoitzean aipatzen diren gaiei eragin gabe.

HAEEK emandako irizpenak gure tesia berretsi du. Oinarri gisa arrazionaltasun irizpideak hartu ditu eta administrazio publiko baten jarduna bideratu behar duten jarraibideetara egokitu da. Gainera, hainbat administrazio publikoek egiaztagirien sistema erabiltzeko izan duten moduak irizpen hori indartzen du.

5. Foru Aldundiak erakunde honek azaldutakoaren aurrean argudiatu dituen arrazoiak oinarrietan baliozkotzeko sistemarik ez aurreikustea, administrazioaren jardueraren eraginkortasuna eta segurtasun juridikoa dira.

Administrazioak tentuz jokatu du, probak izapidetzerakoan deialdian xedatutakoari eta horren oinarriei lotzea saiatur, eta jarrera hori ulertzen dugu.

Hala ere, ez gatoz bere irizpidearekin bat, alegia, maila aurreratua ziurtatzeak kalifikazio epaimahaiak araudi berri bat sartzeari ekartzearekin.

Gure ustez, deialdiaren oinarriak ariketa gainditu ahal izateko behar den jakintza zehazten du soilik, eta jakintza hori IT Txartela ziurtagiri sistemaren arabera neurtzen da. Gutxieneko batzuk ezartzea izango litzateke, baina tresna informatiko beraren gaineko jakintza maila handiagoa bazter uztea ekarriko lukeen justifikaziorik gabe, sistema beraren bidez ziurtatuta; hau da, Microsoft Excel XP moduluaren IT Txartela, maila aurreratuan. Hirugarren gogoetan aipatu genuen jakintzen izaera progresibo eta metatzaileak oinarriak horrela irakurtzea ahalbidetzen du; araututako elementuak errespetatzea, esaterako, proba gainditzeko jakintza zehatzak eskatzea eta egiaztatzeko sistema.





Hortaz, arrazoizkoa da maila aurreratuaren ziurtagiria zuten pertsonak, oinarrien irakurketa hori egin izana, eta ondorioz, zalantzarik gabe pentsatu izana hori aplikatzeak ez zukeela oztoporik ekarriko oposizioko ariketa gainditzeko. Prozedura ikuspuntu honetatik begiratzeak pentsarazten digu pertsona horiek emandako ziurtagiriak ez onartzea hautapen prozesutik baztergarria izan daitekeelako erabakia zen eta segurtasun juridikoan eragin dezakeen erabakia zen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

1/2010 GOMENDIOA, urtarrilaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailari egina

Hautapen prozeduraren izapideak ahalbidetzen duen heinean, Microsoft Excel XP moduluko maila aurreratuaren ziurtagiria onartzea, IT Txartela sistemaren arabera emana, administrazio orokorreko eskalan, administrazioko azpieskalan, karrerako funtzionario gisa sartzeko deitutako hautapen prozedurako oinarri espezifikotetan ezarritakoaren ondorioetarako.

